

BEHATZ PUNTETARAINO JAKIN NAHIKO NUKE

Gaurkoan, gela ilun honetan zure aurrean zutik nagoelarik, argi batek argizatzen zaituelarik, zuri begira nago ni, eta hamaika burura datozkit.

Jakin nahiko nuke zure ilea nolakoa den, zerk koloreztatzen duen, zer forma eta zer luzera duen. Agian kiribil jostari batzuek apaintzen dute zure burua, akaso itsaso bare eta lasai batek. Behatz puntetarainokoa ere izan liteke, ur-jauzi baten antzekoa, txirikorda batean jasoa eta lore ederrez apaindua. Beharbada belar moztu berri bat duzu zure buru gainean.

Jakin nahiko nuke zein den zure begien itxura, zure begien isla. Zer nolakoa den tristura, poztasuna, edota egoera batean sumindu zaitzakeen zalantza. Enborraren marroi edo egunsentiaren laranja kolorekoak ote dira? Esmeraldaren berde ala kometa urdin baten antzekoak zureak ere?

Jakin nahiko nuke zein den zure aurpegian hazi den mendatea. Nire sorterrian badaude hainbateko: zabal eta meheak, altu eta baxuak, bikoitzak, bakoitiak... Zer irudi margotu ote du zurea den eta ezagutzen duzun horretan?

Jakin nahiko nuke zer nolakoa den ezpainenk marrazten dizutena. Nola argitu eta itzaltzen den zure irribarrea, "sentitzea" deritzoten artelana zuk nola osatzen duzun. Baina malkoak, irria eta zalantza ezkutuan mantentzen dituzu.

Jakin nahiko nuke zure hatzek nola egiten duten dantza airean, pentsatu paperean edota edan liburu artean. Nola aireratzen diren zure oinak musika zainetan duzularik dantzatzean, salto egitean, bidean aurrera egitean, bidezidorrak zeharkatzean... Jakin nahiko nuke zer den zu korrikan ikustea, zer nolakoa den, noraezerako bidean zaudelarik, haizeak aurpegia laztantzen dizula sentitzea.

Baina, aurrean zaitudan arren, ezin dut nahiko nukena jakin. Eta begira nago, zure ilea, zure bi begiak egon beharko lirateken tokira, zure sudurra eta ahoa egon beharko lirateken tokira, baina ezin ditut ikusi, itsaso urdin batek, zeruaren isla den horrek estaltzen baititu.

Begira nago zure esku dantzariak eta hanka korrikalariak egon beharko lirateken tokira, baina ezin ditut ikusi, itsaso urdin batek, zeruaren isla den horrek estaltzen baititu.

Badirudi hankak lotu dizkizutela, begiak itxi eta ahoa estali dizutela, baina ezin ditut ikusi, itsasoa den zeru eta zeru den itsaso urdin batek estaltzen baititu.

Sakon eta ilun bilakatu ziren, behin batean askatasun eta arnagune ziren itsaso zabal eta zeru garbia. Txikitu dira orain, zakartu, azala ikutzera iritsi diren arte, kaiola bilakatu diren arte. Jada ez dago dantzatzeko tokirik, ez dago korrika egiteko tokirik, ezta irribarre egiteko edota sentitzeko ere. Ez dago izateko tokirik.

Esan didate moralari eman ziotela noizbait itsaso eta zero urdin zabal izan zirenen agintea. Bi begi, sudur bat eta ahoa ikus diezazkiokedan moralari, eta hark estali zituela hain preziatuak eta arriskutsuak ziren kanta, doinu eta oihuak. Hala, ahots horien oihartzunak dira, geroztik, bizi garen kobazuloan entzun eta ahaztu egiten direnak.

Gaurkoan, gela ilun honetan zure aurrean zutik nagoelarik, argi batek argizatzen zaituelarik, zuri begira nago ni. Eta hamaika jakin nahiko nituzkelarik, hamaika galdetzen dizkizudalarik, nire itsaso eta zero urdinak nolakoak ote diren pentsatzen hasten naiz. Baina, konturatzen naiz, ez daukadala denborarik, museoa ixtear dago eta.